

ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA IREKITZEA, PARTE HARTZEKO PROZEDURA ETA HAUTAKETA PROZESUEN GARAPENARI BURUZKO INFORMAZIO INTERESGARRIA

1. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA IREKITZEA

Ireki egiten da ondoko hautaketa prozesuetan eskaerak aurkezteko epea. Hautaketa prozesu horiek "San Sebastián Turismo – Donostia Turismoa, S.A." sozietatearen (aurrerantzean, Donostia Turismoa) 2022ko lan eskaintza publikoaren hainbat modalitateri dagozkie:

Hautaketa prozesua	Lanpostua	Hautaketa sistema	Sarbide modalitatea	Plazak guztira	Euskara	Enplegu eskaintza publikoa
1	Harrera eta informazio agentea	Oposizio lehiaketa	Orokorra	1	B2 nahitaezkoa	2022ko egonkortze bereziko tasa
2	Harrera eta informazio agentea	Lehiaketa	Orokorra	2	B2 nahitaezkoa	2022ko salbuespeneko egonkortze tasa
3	Komunikazio arduraduna	Lehiaketa	Orokorra	1	C2 nahitaezkoa	2022ko salbuespeneko egonkortze tasa
4	Marketin kudeaketako teknikaria	Lehiaketa	Orokorra	1	C1 nahitaezkoa	2022ko salbuespeneko egonkortze tasa
5	Produktuaren eta Azken Publikoaren merkataritza-kudeaketako teknikaria	Lehiaketa	Orokorra	1	C1 nahitaezkoa	2022ko salbuespeneko egonkortze tasa
6	Zuzendaritzako idazkaria	Lehiaketa	Orokorra	1	B2 nahitaezkoa	2022ko salbuespeneko egonkortze tasa

Prozesuan parte hartzeko eskaerak izapidetzeko epea hamar (10) egun baliodunekoa izango da, epearen irekiera <https://www.sansebastianturismoa.eus/es/contratacion> helbide elektronikoan jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hain zuzen, **2024ko apirilaren 2tik 15era arte**.

Eskaerak hurrengo 2.atalean xehetasunez azaltzen den prozedura betez aurkeztu beharko dira.

2. PARTE HARTZEKO PROZEDURA

2.1. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

Hautaketa prozesuan parte hartzeko betekizun orokorrei eta berariazkoei dagozkien egiaztagiria erantsi beharko dira (ikus oinarri orokorrak eta berariazkoak), baita aurkeztu diren merezimenduei buruzko agiriak; merezimenduak formularioan adierazi beharko dira.

Aurkezten diren agiri guztiek originalak, kopia autentikoak edo kopia konpultsatuak izan behar dute, eta kontuan izan beharko da "Oinarri orokorrak gehitzeari" buruzko apartatuan adierazitakoa (adierazitakoa modu frogagarrian egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztea, izangaia hautatua izanez gero).

Gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza batean dagoen dokumentu guztien kasuan, zinpeko itzultzaileak egindako itzulpenak aurkeztu beharko dira, baloratuak izateko. Itzultzeko behar horretatik salbuetsita egongo dira frantses, ingeles edo aleman maila egiaztatzen duten titulu ofizialak.

Eskaerak aurkezteko epea behin amaituta, ezingo da dokumentazio gehiagorik entregatu, Donostia Turismoak –alde aurretik aipatutako informazioa egiaztatzeko edo datu gehiago izateko– esanbidez eskatutakoa ez bada.

Betekizun orokor zein berariazkoak, baita oinarri orokor eta berariazko horiekin bat dagozkion merezimenduak ere, egiaztatzeko aurkeztu behar diren agiriak honako hauek dira:

- A. NANA edo baliokidea den identifikazio dokumentua.
- B. **ESKATZEN DEN TITULU AKADEMIKO OFIZIALA:** Titulua edo hura jaulkitzeko eskubideak ordaindu izanaren agiria, hautaketa prozesuan eskatzen diren titulazioei dagokiena. Atzerriko tituluen kasuan, tituluaren homologazioari dagokion egiaztagiria eduki beharko da.
- C. **EUSKARA ETA ESKATZEN DIREN BESTE HIZKUNTZAK:** Eskatzen den titulazio ofiziala, lanpostua dela eta dagozkion berariazko oinarrietan adierazitako betekizun berezien arabera.
- D. **LANBIDE ESPERIENTZIA:** Eskatzaileak erakunde bertan (Donostia Turismoa) emandako zerbitzuak aipatu beharko ditu, eta ofizioz aintzat hartuko dira, egiaztagiririk aurkeztu beharrik gabe.

Gainerako erakunde publikoetan emandako zerbitzuak aipatu eta egiaztatu beharko dira; horretarako, egiaztagiria edo hura eskatu izanaren frogagarria aurkeztu beharko da. Aipatu egiaztagiria, erakunde bakoitzak erabakitako eremuan, kontratazio aldi (*) bakoitzari buruz honako informazio hau eman beharko du: lanpostuaren izena, kategoria, lanpostuan hasteko data eta amaierako data, emandako zerbitzuen iraupena egunetan adierazita, lanaldiaren % (**) eta eginkizunen azalpena.

(*) Izendapen/kontratu biren edo gehiagoren artean etenaldirik ez badago, guztiak batera merezimendu bakar gisa aipa daitezke, lehenengoa hasteko egunetik azkena amaitzeko egunera arteko iraupenarekin, baldin eta erakunde berean, plaza/lanpostu berean eta lanaldi eta eginkizun berdinekin eman badira.

(**) Emandako zerbitzuen iraupena, egunetan adierazitakoa, dagoeneko lanaldiaren % aintzat hartuta kalkulatu bada, jasota utzi beharko da.

Kasu guztietan, lanbide esperientzia baloratzeko, zehaztu eta egiaztatu beharko dira honako denboraldi hauek: senideak zaintzeko eszedentzian edota genero indarkeriagatik eszedentzian egotea; amatasuna edo aitatasuna babestea edo biritza pertsonal, familia eta lanaren bateragarritasun erantzunkidea sustatzea helburu duten lanaldi murrizketen edo baimenen iraunaldiak; baita langileek genero indarkeriagatik baimenak baliatu dituzten denbora ere. Egiaztatzea ez da beharrezkoa izango, Donostia Turismoan lan egin bitartean izan bada.

E. BESTELAKO TITULAZIO AKADEMIKO OFIZIALAK, BEREZKO UNIBERTSITATE TITULUAK ETA PRESTAKUNTZA AKADEMIKO OFIZIALA: Titulua edo hura jaulkitzeko eskubideak ordaindu izanaren agiria. Atzerriko tituluen kasuan, tituluaren homologazioari dagokion egiaztagiria eduki beharko da.

F. BESTELAKO PRESTAKUNTZA IKASTAROAK: Ikastaroaren tituluak edo ziurtagiriak, gutxienez, honako datu hauekin: Ikastaroaren izenburua, prestakuntza orduen kopurua, data eta prestakuntza ematen duen erakundea.

Egindako prestakuntza ikastaro guztien egiaztagiria aurkeztu beharko dira.

G. ATZERRIKO HIZKUNTZAK: Titulazio edo ziurtagiri ofizialak, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren arabera onartutako baliokidetasuna dutenak.

H. INFORMATIKA EZAGUTZA: IT Txartelak, hala badagokio, maila adierazten dutenak.

2.2. ESKAERA AURKEZTEA:

Parte hartzeko eskaerak eta eskatzen den dokumentazioa soilik sansebastianturismoa@oteic.com helbide elektronikoaren bidez aurkeztu ahal izango dira.

Donostia Turismoak eskaera bat baino ez du baloratuko hautaketa prozesu bakoitzean (lanpostua, hautaketa sistema eta sarbide modalitatea). Pertsona batek lanpostu, hautaketa sistema eta sarbide modalitate baterako eskaera bat baino gehiago aurkezten badu, Donostia Turismoak bidalitako azken eskaera soilik hartuko du kontuan.

Interesdunek honako **dokumentu hauek bete beharko dituzte:**

1. **Parte hartzeko eskaera orria:** 3 fitxa dituen Excel fitxategia: identifikazio datuak, esperientzia eta prestakuntza.
Eskatzaileak parte hartzeko betekizunak betetzen dituela adierazi eta merezimenduak aipatu beharko ditu, formularioan eskatzen diren atal eta xehetasun guztiak betez.
2. **Parte hartzeko betekizunak betetzeari eta emandako datuen egiazkotasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpena:** pdf dokumentu editagarria.
Dokumentu hori ziurtagiri digitalaren bidez edo eskuz sinatu beharko da.

Dokumentu biak <https://www.sansebastianturismoa.eus/eu/kontratazioa> web orrian daude eskuragai.

Dokumentu biak, hau da, Parte hartzeko eskaera orria (Excel fitxategia) betea eta erantzukizunpeko adierazpena (pdf dokumentua) sinatua, **hautaketa prozesuan parte hartzeko betekizun orokorrei eta berariazkoei dagozkien egiaztagiri guztiak** (ikus prozesu bakoitzaren oinarri orokorrak eta berariazkoak), **baita aipatutako merezimenduei dagokion dokumentazioa ere**, sansebastianturismoa@oteic.com helbide elektronikora bidali beharko dira.

Egiaztagiriak banaka erantsi beharko dira (fitxategi bat eduki bakoitzeko), beraz, banan-banan eskaneatzea gomendatzen dugu. Onar daitekeen fitxategiaren gehieneko tamaina 10 MB da.

Parte hartu nahi den hautaketa prozesu bakoitzeko eskaera osoa aurkeztu beharko da. Harrerako eta informazioko agente lanposturako hautaketa prozesuaren kasuan (1. hautaketa prozesua), eskatzaileek parte hartu nahi duten prozesuari dagokion hautaketa sistema zehaztu beharko dute (lehiaketa eta/edo oposizio lehiaketa).

Eskaera aurkezteko prozedura osoa bete ez duten izangaiak hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira.

Edozein zalantza argitu edo azalpen bat eskatu behar izanez gero, sansebastianturismoa@oteic.com helbide elektronikoa erabil daiteke harremanetan jartzeko.

3. HAUTAKETA PROZESUAREN GARAPENA

Honako mugarri hauek aurreikusten dira hautaketa prozesuen garapenean:

3.1. HAUTAKETA PROZESUAN ONARTU ETA BAZTERTU DIREN PERTSONEN ZERRENDAK

Parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea amaituta, eskaerak aztertu egingo dira hautaketa prozesuan eskatzen diren betekizun orokorrak eta berariazkoak betetzen diren egiaztatzeko, eta onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrendak argitaratuko dira.

Zerrenda horietan baztertzeko arrazoia adieraziko da, hala dagokionean, eta 3 egun balioduneko epea emango da erreklamazioak aurkezteko eta eskaeretan egon daitezkeen akatsak zuzentzeko; epea aipatutako zerrendak argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da. Epea igarota, erreklamazioak ebatzi ondoren, onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrendak argitaratuko dira.

Aurkeztu behar den dokumentazioa aztertu eta gero betekizunetako bat ez dela betetzen ikusten bada, interesdunek galdu egingo dituzte prozesuan parte hartzearen ondorioz egoki dakizkiekeen eskubide guztiak, faltsutzeagatik eskatu ahal zaizkien erantzukizunak galarazi gabe.

3.2. OPOSIZIO FASEA

Oposizio fasean, lanbide gaitasuna baloratuko da honako proba hau(ek) eginez: hainbat erantzun aukera dituzten galderen sortak eta/edo kasu teoriko-praktikoak, deialdiko lanpostuen eginkizunekin eta jarduera esparruarekin zerikusia dutenak.

Izangaiei dei bakarra egingo zaie <https://www.sansebastianturismoa.eus/eu/kontratazioa> webguneko atalaren bidez. Deitutako izangaia probetako batean agertzen ez bada, automatikoki galduko du proban parte hartzeko eskubidea; ondorioz, hautaketa prozesutik kanpo geratuko da, behar bezala justifikatutako eta Hautaketa Batzordeak –arrazoiak emanez– aintzat hartutako kasuetan izan ezik.

Oposizio fasea amaituta, horren behin-behineko emaitzak aditzera emango dira eta 3 egun balioduneko epea emango da erreklamazioak aurkezteko, emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Epea igarota eta erreklamazioak ebatzita, oposizio fasearen behin betiko emaitzak argitaratuko dira.

Fase hori oposizio lehiaketa bidezko hautaketa sistema duten lanpostuei soilik aplikatuko zaie.

3.3. LEHIAKETA FASEA

Jarraian azaltzen den prozedurari jarraikiz, eskaeran aipatutako eta egiaztatutako merezimenduei buruzko informazioa bildu, kalifikazioa eman, merezimenduak baloratu eta egiaztatu egingo dira, hautaketa prozesurako –dagozkion berariazko oinarrietan– ezarritako baremoen arabera, eta dagozkion zerrendak argitaratuko dira.

3.3.1. EGINDAKO AUTOBAREMAZIOAREN INFORMAZIO ZERRENDAK

Hautaketa prozesuan onartutako eskaerei dagokienez, behin-behineko informazio zerrenda argitaratuko da, eskaera formularioaren bidez egindako autobaremazioaren araberako puntuazioa adierazita.

3 egun balioduneko epea egongo da, zerrendak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, erreklamazioak aurkezteko eta zerrendetan egon daitezkeen akatsak edo omisioak zuzentzeko.

Ez dira onartuko merezimendu berriak –aurkeztutako eskaeran aipatu ez direnak– aipatzeko asmoz aurkezten diren erreklamazioak edo zuzenketak.

Epea igarota eta erreklamazioak ebatzi ondoren, onartutako pertsonen eta parte hartzeko eskaeran egindako autobaremazioaren arabera puntuazioen behin betiko zerrendak argitaratuko dira.

Autobaremazioaren informazio zerrendan agertzeak ez du esan nahi autobaremazio bidez esleitutako puntuazioa baliagarritzat eta egiaztatutzat jotzen denik.

3.3.2. AIPATUTAKO MEREZIMENDUAK KALIFIKATZEA, BALORATZEA ETA EGIAZTATZEA

Hautagaiak metatutako puntuazioaren arabera ordenan jarrita (oposizio fasea gehi autobaremazioa, hala badagokio), merezimenduak egiaztatzeari ekingo zaio.

Fase horretan izangaien kopuru jakin batek hartuko du parte, hain zuzen, puntuazio handiena lortu dutenek eta deitutako plaza kopuruaren arabera zehaztutako izangai kopuruan daudenek.

Lehiaketa fasean parte hartuko duten izangaien gutxieneko kopurua deitutako plaza (unitate) bakoitzeko 3 izangai da.

Hala ere, zerrendako azken lekua hartzeko puntuazio bera duten izangaiak egonez gero, berdinketa egoeran dauden pertsona guztien merezimenduak egiaztatu eta baloratuko dira.

Hautaketa Batzordeak hautaketa prozesurako berariazko oinarrietan ezarritako baremoen arabera egiaztatu eta baloratuko ditu azaldutako eta egiaztatutako merezimenduak, eta izangai bakoitzari baremo horien arabera dagokion puntuazioa esleituko zaio.

Autobaremazioa egiaztatu eta fase honetan parte hartzen duten izangai guztiak kalifikatu ondoren izangaietako batek autobaremazioan adierazitakoa baino puntuazio txikiagoa badu eta, ondorioz, bere posizio erlatiboa fasean parte hartzeko eskubidea ematen duten puntuazio handien artean jada ez badago, Hautaketa Batzordeak hurrengo izangaiaren edo izangaien merezimenduak egiaztatuko ditu, ezarritako izangai kopurua osatu arte.

Aplikatu beharreko irizpideak:

Merezimenduak kontuan izateko erreferentziazko data prozesuan parte hartzeko eskaerak aurkezteko epearen azken eguna izango da.

Parte hartzeko eskaera orrian behar bezala aipatu eta egiaztatu diren merezimenduak baino ez dira aintzat hartuko, akats materialak, aritmetikoak edo izatezkoak zuzentzeko aukera galarazi gabe. Halaber, ez dira baloratuko behar bezala egiaztatu ez diren merezimenduak edo –dagokion baremoaren arabera– dagokion merezimendua baloratzeko beharrezkoak diren daturik ez duten agiriak.

Eskaerak aurkezteko epea behin amaituta, ezingo da dokumentazio gehiagorik entregatu, Donostia Turismoak –aipatutako merezimenduak egiaztatzeko edo horiei buruzko datu gehiago izateko– esanbidez eskatutakoa ez bada. Era berean, dokumentu originala edo merezimenduak behar bezala egiaztatu eta baloratzeko beharrezkotzat jotzen den edozein dokumentazio osagarri noiznahi eskatu ahal izango da.

Emandako zerbitzuak (lanbide esperientzia) baloratzeko baremoa lanaldi osoan emandako zerbitzuak erreferentziatzen hartuz ezartzen da. Hala ere, lanbide esperientziaren ondorioetarako, baloratu egingo dira honako denboraldi hauek: senideak zaintzeko eszedentzian edota genero indarkeriagatik eszedentzian egotea; amatasuna edo aitasuna babestea edo bizitza pertsonal, familia eta lanaren bateragarritasun erantzunkidea sustatzea helburu duten lanaldi murrizketen edo baimenen iraunaldiak; baita langile publikoek genero indarkeriagatik baimenak baliatu dituzten denbora ere. Zirkunstantzia horiek % 100 gisa zenbatuko dira, baldin eta aurkeztutako dokumentazioan behar bezala egiaztatzen badira.

Aldi baterako esperientziak lanaldi partzialen kasuan baino ez dira baloratuko; inola ere ez dira zenbatuko % 100 gainditzen duten lanaldiak.

Esperientzia mota bakoitzean lan egindako aldi guztiak batuz egingo da zenbaketa, eta, batuketa eginda, emaitzan ez dira kontuan izango hilabetetik beherako zatikiak. Ondorio horietarako, hilabetea 30 eguneko multzoa izango da.

3.4. AZKEN SAILKAPENA

Balorazioa (oposizioa, hala badagokio, eta lehiaketa) amaituta, hautaketa prozesuko behin-behineko azken sailkapenak argitaratuko dira.

Izangai bakoitzaren behin-behineko azken kalifikazioa, hala badagokio, oposizio fasean eta lehiaketa faseko atal desberdinetan lortutako puntuazioak batuz kalkulatu da, hautaketa prozesuaren berariazko oinarrietan azaldutako baremoari jarraikiz.

Behin-behineko azken sailkapenari dagokionez, izangai bakoitzaren lehentasun hurrenkera adieraziko da lortutako puntuazioa kontuan hartuta eta, hala badagokio, deialdiaren oinarrietan aurreikusitako berdinketa ebazteko irizpideak aplikatuta.

Kalifikazioak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, izangaiek 3 egun baliaduneko epea izango dute egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Epea amaituta, aurkeztutako erreklamazioak aztertuko dira eta behin betiko azken sailkapena argitaratuko da.

3.5. DONOSTIA TURISMOAN LANEAN HASTEAN

Hautaketa prozesuaren bidez hautatutako izangaiek oinarri orokorren zazpigarren klausulan aipatutako prozedurei jarraikiz sartuko dira sozietatean.

4. JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKATUAK EGITEKO BIDEA

Hautaketa prozesuan zehar, horren garapenerako alderdiei lotutako informazio guztia (zerrendak, probetarako deialdia, emaitzak eta abar) <https://www.sansebastianturismoa.eus/eu/kontratazioa> helbide elektronikoan argitaratuko da, jakinarazpenaren ondorioetarako.

Egin beharreko banako jakinarazpen eta komunikatuak bidaltzeko lehentasunezko bidetzat parte hartzeko eskaera orrian adierazitako helbide elektronikoa hartuko da, izangaiak organo deitzaileari geroago beste bide bat esanbidez eta modu frogagarrian jakinarazten ez badio behintzat.

5. ERREKLAMAZIOAK/ALEGAZIOAK:

Informazioa jakinarazpen ondorioetarako zehaztutako hedabidean (<https://www.sansebastianturismoa.eus/es/contratacion>) argitaratu ondoren, interesdunek 3 egun balioduneko epean aurkeztu ahal izango dituzte erreklamazioak, informazioa agertu eta hurrengo egunetik aurrera.

Alegazioak eta erreklamazioak helbide elektronikoa honetara bidali beharko dira: sansebastianturismoa@oteic.com, beti interesduna identifikatuta.

6. IZANGAIAK IDENTIFIKATZEA

Dagozkion informazioak argitaratu behar izanez gero, izangaiaren NANaren edo baliokidea den identifikazio dokumentuaren zenbakiko laugarren, bosgarren, seigarren eta zazpigarren digituak erabiliko dira izangaia identifikatzeko.

Donostia, 2024ko martxoaren 27a